

Udako gau-egunak

Errazagoa da udan parranda egitea neguan baino, askoz ere errazagoa. Goizero, iratzargailuak jo orduko, neure buruari hitzematen diot gauean 21:00ak baino lehen afaldu, eta garaiz oheratuko naizela; goizeroiko promesa gauero urratzen dut.

Lanetik irten, zuretzako edo lagunentzako denbora hartu eta 20:30erako afariaren aurrean txintxo eserita egon nahi baduzu, jai duzu. Ez du denborarik ematen, nire egunari orduak falta zaizkio, asteari egunak, eta hila-beteari asteak... zergatik pasatzen zait hain azkar bizitza? Dena primeran doan seinale! Matematika eskolako minutuak ez ziren hain

agudo igarotzen, zenbat sufirakario ordulariko orratz txikiei erre-guka...

Neguan, arratsaldeko sei etarako gorputza iluntasunera moldatzen hasten da, eta zazpiak baino lehen gaua dela eta etxerako garaia dela sinesten du zure intuitzioak. Hortik aurrera, salda beroa hartzeko irrika handiagoa izaten da garagardo hotza edateko baino. Udan, ordea, ilundu arte ez zara konturatzen gaueko hamarrak direnik, oraindik kalean zaude, afaltzeko eta etxera joateko gogo handirik gabe. Eta parrandekin ere antzeko zerbait gertatzen da, udan kalean bertan ustekabea kateatzen zaitu festa giroak, txankletekin, praka mo-

ztetan eta kamiseta hutsean -edo tarteka badaezpada jertseren bat poltsan daramazula, Euskal Herrian gaude, ez gaitzen harrotu-.

Baina neguan juergan ateratzeko behar duzun azpiegiturak berak atzera botatzen zaitu. Azpiko kamiseta, kamiseta manga luzea, kuellobueltoko jertsea, prakak, botak, berokia, lepoko zapi... soinean dituzula, edalontzi hotza eskuen artean hartzeak ematen dizun barne tristura hori gainetik kentzea ez da lan samurra izaten. Orduan, taberna barruan zaudela gustuko abestia jarri dutenean dantzan hasteko imintzioa egiten duzu, baina, noski, trapu horiek denak soine-

an dituzula zaila da gorputza nahi bezala kontrolatzea. Michelineko gizontxo txuria bazina bezala sentitzen zarenean zaila da ondo dantzatzeko duzula sinestea.

Ezinbestean, berokia eta bufanda kentzen dituzu. Esku batean poltsa eta edalontzi hotza, bestean berokia eta bufanda -beti bezala, bufanda muturra lurretik arrastaka eramango duzu denbora puska batean, tabernako zortuko kalimotxo guztiak xurgatu dituela konturatu aurretik-. Eta

segi dantzan, eskuak trastez beteta dituzunean, ipurdia mugitzea iruditzen zaizu irtenbiderik duinena. Nerabea nintzenean an-dreek nola dantza egiten zuten gorroto nuen, lotsagarria iruditzen zitzaidan, ez nuen ulertzen zergatik egiten zuten ipurdi alda-ka dantza penagarri hura.

Eta konturatzerako, ni naiz orain horrela dantza egiten duena, nerabeek ikusten nautenean andre dantzan ari naizela pentsatuko dute, eta beraien artean barretxoekin komentatuko dute. Ene... zeinen agudo pasatzen zaizkidan egunak, asteak, hilabeteak, urteak.

Baina ahaztu neguko kontuak, udan gaude. Goza dezagun eguna azken apurretaraino, harrapa gaitzala ilunabarrak praka motzetan

Goza dezagun eguna azken apurretaraino, harrapa gaitzala ilunabarrak praka motzetan

Madalenako ospitale zaharra, umiltasunaren santutegia

Xabier Riezu
Deustuko
Unibertsitateko irakaslea

Santutegiak izaki bereziak gurtzeko herri eta kultura desberdinek sortutako lekuak dira, eta garai bakoitzean gizon-emakumeok transzendentziarekin izandako harreman mota adierazten dute: Egiptoko Karnak, Java uharterko Borobudur, edo Vatikanoko San Petri, eta antzeko eraikuntza ikusgarriak, gizarte egitura bortituen lekukotasunaz harago, lezio ederra ematen diote bisitari harroari: sakratua irudikatzen duen arkitektura handiaren aurrean, gizabanakoa zein txiki eta ezigauza den konturatzea bultzatzen dute. Loiolako santutegia da, alde horretatik, Euskal Herrian dugun ondare unibertsal nagusietako bat. Barroko garaia jainkoarekiko harremana nola ulertu zuen adierazten duen eraikin miresgarria.

Handik oso hurbil, Azpeitiko herrian, Madalena auzoan, santutegiarekin lotura zuzena izan-

nik, oso bestelakoa den eraikin bat inauguratu zen maiatzaren 1ean: Madalenako ospitale zaharra. Erortzeko zorian zegoen eraikina eraberritu eta interpretazio zentro bihurtu dute jesuitek.

Erdi Arotik, lepradunak eta behartsuak zaintzeko lekua zen Madalenako ospitale zaharra. Hori garrantzitsua izanik, eraikin horren ezaugarri nagusia Ignazio Loiolakoaren historian betetzen duen leku esanguratsua da.

1535ean, Parisen Jesusen Lagundiaren hazia izango zen taldetxoa sortu ondoren, Ignazio bere jaioterrira itzuli zen. Azpeitira iristean, Madalena ostatu zuen 1535eko apiriletik uztailaren amaierara arte. Senideek dorretxea eskaini zioten arren, nahia-go izan zuen behartsuentzako etxea. Anaia enkargu hau eman omen zion: bera ez zela «Loiolako etxea eskatzera etorri, ezta jauregiaren ibiltzera ere, Jaunaren hitza ere itera baizik». Gaixoak zaindu, behartsuei lagundu eta ondoan dagoen Madalenako ermitan eta parrokan predikatzen zuen. Telletxea Idigoras historialariak, Ignazioren biografian, garai hartako hogeitiguteren esanak errepasatu ondoren,

Ignaziok «jaioterrian sortu zuen dardara» aipatzen du, eta handik joan zenean Azpeitian utzitako «halako on-distira eta on-ereintza» (*Bakarrik eta oñez*, Berrondok euskaratua, 1987).

Merezi du Madalenako eraikin eraberritua bisitatzeko; hango solairuetan patxadaz ibiltzea; ospitale zaharreko egurrezko oheak ikustea; tradizioaren arabera Ignazioren gela izan zen txokoan gelditune bat egin, eta han jarri

duten irudian Ignazioren begirada sakonari erreparatzea. Argibide taula batean irakur dezakegu Madalena dela «San Ignazioren egiazko santutegia», hona etorri zelako Ignazio konbertituta, ez Loiolako jauregira, eta hemen egin zuenak islatzen duelako aurreneko jesuita haien izpiritua.

Carlo Fontana arkitekto ospetsuak Loiolako Santutegirako diseinaturiko zutabe, arku, kupula eta haitzurdin aberats guztiek bezalaxe, Madalenak txiki eta apal sentiarazten gaitu, baina beste modu batera lortzen du hori. Barrokoaren edertasun liluragarriaren orde, Madalenak gizatasunaren berotasun xumea dakarkigu. Bizitzaren aukera egiteko unea, txikien eta ahulen aldeko apustua egiten dutenek gugan pizten duten miresmen eta umiltasuna.

Azpeitiko alkate Eneko Etxeberriak inaugurazio ekitaldian adierazi bezala, bestelako mundu bat eraiki nahi dutenentzat inspirazio iturri ederra da Madalenako ospitalea. Loiolako santutegiak osatzen duen harribitxi espiritualari muzin egin gabe, XXI. menderako santutegi ezin hobea begitintzen zait Madalenakoa.

Gaixoak zaindu, behartsuei lagundu eta ondoan dagoen Madalenako ermitan eta parrokan predikatzen zuen

51

IRAILETIK AURRERAKO DONOSTIAKO IKASTAROAK

Datorren ikasturtean, aurtien baino %6 ikastaro gehiago eskainiko ditu Donostia Kulturak; 551 ikastaro eskainiko dira Gipuzkoako hiri-buruko kultur etxeetan. Guztira, 8.000 herritarrek izango dute horietan parte hartzeko aukera, eta irailaren 9an zabalduko dute matrikulatzeke epea.



«Erabaki nagusiak Kutxabanen hartzen direnez, Gipuzkoak ez luke indar handirik izango, gizarte ekintzaz erabakitzeaz harago»

Eñaut Apaolaza
Ekai Centerreko kidea

GIPUZKOAKO HITZA irakurleen eskutitzak plazaratzen ditu. Ez dituzte 1.400 karaktere baino gehiago izan behar, tarteak barne, eta **GIPUZKOAKO HITZA**ko mizteko eskubidea du. Helbide honetara bidali behar dira, izen-abizenak eta herria adierazita: Gipuzkoako Hitza, Martin Ugalde kultur parkea, 20140 Andoain. Eskutitzak Internet bidez bidaltzeko: gipuzkoa@hitza.eus